

ALDAKETAK AZTERTZEKO GIDOIA

Objektuak/tresnak

1. Zer da?
2. Zertarako balio du?
3. Nolako da?
4. Kidearekin batera idatz ezazue bi objektuen artean aurkitu dituzuen ezberdintasunak.
5. Bien artean adostasunera heldu eta aurkitu duzuen ezberdintasun bakoitzaren alboan azaldu zergatik aldatu diren objektu horiek.

Pertsonen argazkiak

1. Nortzuk agertzen dira?
2. Nolakoak dira?
3. Zer egiten dute? Non daude?
4. Kidearen batera idatzi pertsonen bi argazkien artean aurkitu dituzuen ezberdintasunak.
5. Bien arteko adostasunera iritsi eta ezberdintasun bakoitzaren alboan azaldu zergatik aldatu diren argazki horietako pertsonak.

Paisaiak

1. Zer motako paisaia da...
2. Zein gauza agertzen dira?
3. Zure kidearekin batera bi paisaietan ageri diren hiru gauza garrantzitsu aukeratu. Idatzi nolakoak diren zureak.
4. Kidearekin batera idatz ezazue aukeratu dituzuen hiru gauza garrantzitsuen artean topatu dituzuen ezberdintasunak.
5. Iritsi bien arteko adostasunera eta aurkitutako ezberdintasun bakoitzaren ondoan azaldu zergatik aldatu diren.